

# EUSKARAREN Berripapera

## aurkibidea

1 • Patxi Goenaga, Hizkuntza Politikarako sailburuorde berria

2 • **PERTSONAJEA:** Tomas Garbizu, musikarako jaioriko bidegilea

• **LABURRAK:** Pausoak Programa Zarautzen

Eusko Jaurlaritzaren Expolangue azokan

Kaxiano hil da

• **AGENDA:** UEUren eta SEI elkartearen Soziolinguistika ikastaroa

3 • UEMA beste udalerrietara zabandu beharra

• Bizkai euskeraren jarraibide liburua

4 • Argia sariak  
• "Eibartarren ahota" programa

Patxi Goenaga, Hizkuntza Politikarako sailburuorde berria  
**"Bide berriak aztertu behar dira, beti ere, euskarari aitortzen diogun lekua egiazki emateko"**



ZALDI ERO

**H**izkuntza Politikarako sailburuorde berria da Patxi Goenaga. *Berripapera*-ri eskaini dion elkarrizketan kargua onartzeko izan zituen arazoak eta ondoko urteetan bere lana zuzenduko duten irizpideen berri ematen du.

**Berripapera: EHUKo Filologia fakultateko irakaslea eta euskaltzaina. Nola hartu zenuen izendapena?**

**Patxi Goenaga:** Miren Azkaratek eskaintza egin zidanean, izan nuen aukera alde onak eta txarrak neurtzeko. Gogoeta horren ondoren etorri zen baiezko erantzuna eta, ondorioz, izendapena. Horrenbestez, izendapena jakinaren gainean etorri zitzaidan: eskatzen duen arduragatik, kezka apur batekin, egia, baina hizkuntzari beste alderdi (niretzat berri) batetik begiratu ahal izateak eta ikuspegi horrekin lan egiteko aukerak nolabait kilikatu egiten nau.

**B.: Zein izango duzu lan egitasmoa?**

**P.G.:** Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politikaz arduratu beharko dut. Beraz, batetik orain arteko legeak, arauak eta planak bideratu behar dira. Eta bestetik, bide berriak, asmo berriak aztertu behar dira, beti ere, euskarari aitortzen diogun lekua egiazki emateko, euskaraz bizi ahal izateko euskaldunak duen eskubidea benetan gauzatzeko.

**B.: Nondik abiatuko zara? Lehentasunak?**

**P.G.:** Abiapuntu deserosoa dugu, aurrekontu berririk ez baitugu. Alde horretatik eskuak dezente lotuak edo ditugu lan eta egitasmo berrietan murgiltzeko. Dena dela, bada kontu bat lehentasuna duena niretzat eta da Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, adostasun zabal baten ondorio dena eta bete beharrekoa. Plan hau udaletan abian jartzea dugu lehenbiziko erronka. Horrezaz gainera, badira beste hainbat zeregin.

**B.: Zein dira euskararen Hizkuntza Politikak EAEn dituen on eta gaitz handienak?**

**P.G.:** Badira aski ongi doazen gauzak. Adibidez, euskaldunen kopuruak urterik urte gora egin badu, hezkuntza sisteman egin den lana eraginkorra izan delako da. Helduen euskalduntzeak ere fruitu onak eman ditu. Baina euskaldunon kopuruak gora egin badu ere, euskararen erabilera ez du hainbeste egin. Pentsatu beharko da euskararentzako erabilera esparruak nola zabandu, aisialdian esaterako, edo komunikabideetan. Administrazio mailan edo lan munduan euskarak duen presentzia urria ere sendotu beharra dago.

Erabiltzen den euskara nolako den ere aztertu egin beharko litzateke. Hortik, erabiltzen ditugun baliabideak (irakasleak, materialak, ...) gehitzera eta hobetzera iritsi beharko genuke.

**B.: Zertan eragin nahiko zenuke euskararen eremu geografikoak diren Nafarroan eta Iparraldean?**

**P.G.:** Orain arte bezala, eta ahal bada, areago, *Euskal Herri* deitzen dugun hori egunetik egunera euskaldunago egiten lagundu nahi nuke. Eta ez da samurra, ikusirik zenbaitek *Euskal Herria* terminoa bera ere bahitu egin nahi dutela, euskararen lurralde osoa izendatzeko ez baidarik horren zati bat izendatzeko balia dezagun nahi dutela.

## Laburrak

### Pausoak Programa Zarautzen

Zarauzko Udalak *Pausoak Programa* abiarazi du Zarauzko ostalaritzan, euskararen erabilera areagotzeko asmotan. Horretarako, ostalarien esku jarriko du euskara ikastaro eta dirulaguntzei buruzko oinarriko informazioa. Helburu horrekin, Zarauzko Udalak, *Ostalariaren Eskuliburua* argitaratu berri du. Bertan, euskaraz datoz jate eta tabernetarako menuak, kartak, ogitarteko eta errazio zerrendak. Gainera, bertan, inprimakiak euskaraz egiteko hainbat argibide ematen dira: jendurereko prezio zerrenda, eskaintza bereziak egiteko aholku eta ereduak, fakturak, tiketak, bezero txartelak eta beste.

### Eusko Jaurlaritzaren Expolangues azokan



Parisko Expolangues azokan izan da aurten 17. urtez Eusko Jaurlaritzaren. Urtarrilaren 30etik otsailaren 2ra egin zen "Munduko hizkuntzak. Hizkuntzen mundua" izenburupean eta euskarari eta euskal kulturari

buruzko materialak erakusten zituen estanda jarri zuen bertan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Erakusketa azokan ez ezik, Parisko Euskal Etxean ere izan zuten euskararen berri. Hezinet programa informatikoa ezarri baitzuten bertan Eusko Jaurlaritzak eta HABEK.



### Kaxiano hil da

Kaxiano Iburguren Bolinaga, *Lizartzako Itsua*, 69 urte zituela hil zen urtarrilaren 30ean Lizartzan, jaioterrian. *Itsasontzi baten*, *Zorionak*, *Kantatzera nihoa* eta beste doinu eta hitz ezagun askoren egilea oso estimatua zen hala zaharren nola gazteen artean. Itsuen lasaitasun berezia zuela idatzi zuen Pako Aristik. Joseba Tapiak, berriz, zera zioen, alegia, Kaxianok bete-betean asmatzen zuela mezuan eta doinuekin, eta hori ez zela erraza. San Jose egunean omenaldi berezia egingo zaio Azpeitian, trikiti jaialdi handia tarteko.

## PERTSONAJEA

### Tomas Garbizu Musikarako jaioriko bidegilea



Organoak liluratu bazuen ere, era guztietako musika egiten trebe izan zen Tomas Garbizu (Lezo, 1901-Donostia, 1989). Konpositore zaildua, orkestrarako, txisturako, kanturako, pianorako, ganberarako eta bestetarako jardun zuen. Egun ere, Euskal Herriko elizetan kantatzaren diren hainbat gortzarre, antifona, eta salmo berak egin zituen.

Tomas Garbizu Salaberriak etxea izan zuen habe. Bederatzi anai-arrebatan, anaietarik bi idazle izan zituen, Jon Zubigar, eta Daniel Iruzubi, olerkari nabarmendu baitziren biak. Horien artean, gurasoek ere berehalaxe jarri zuten kulturarako eta musikarako bidean. Bestalde, Jose Millan anaia zaharrenarekin egin zituen lehen piano ikasketak. Arantzazun ikasi zuen lau urtez, eta Donostiako Musika Akademiaren ageritu zuen, pianoan eta harmonian trebatuz.

1924az gero, olerkiak, ipuinak, umorezko lanak eta kronikak (politikaz, antzerkiak eta musikaz) idazten eta plazaratzen hasi zen, Tege ezinez, orduko aldizkari eta egunkarietan: *Euskal Esnalea*, *Argia*, *El Dia*, *El Pueblo Vasco*, *Argiaren Egutegia* eta beste zenbait agerkaritan ageri ziren bere lanak.

Espainiako Gerra Zibilaren garaian ihesi joan zen Iparraldera Tomas Garbizu, eta bertan, bere bizian garrantzi handiko izango ziren bi lagun ezagutu zituen: Xabier Dihartze *Iratzeder*, eta Charles Lebout organista eta konpositore paristarra.

Madrilera jo zuen 40ko hamarkadan eta bertan lan egin zuen, eta konposizio ikasketak sakonak ere burutu zituen bertan. Goi mailako artistak izan zituen lankide eta lagun urte haietan: Elias Salaberria pintorea (lehengusua), Pablo Sorozabal eta Jesus Guridi musikagileak, Jesus Mari Arozamena idazlea...

1953an Donostiako Kontserbatorioko katedra lortu zuen, eta organo irakasle izan zen bertan hemezortzi urtez, ospe handia irabaziz. Hirurogeita hamar urte bete zituen egun berean hartu zuen erretiroa, 1971ko irailaren 12an, eta konposizio lanari lotu zitzaion hil arte. 1989ko azaroaren 27an hil zen, Donostian.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak *Bidegileak* bildumako 23. sortan liburuxka bat eskaini zion Tomas Garbizuri, Patxi Intxaurrendietak eta Patri Urkizuk ondu zuten biografian.

## Agenda

### UEUren eta SEI elkartearen Soziolinguistika ikastaroa

Soziolinguistika ikastaroa eratu dute udaberriko UEUko Soziolinguistika Sailak eta SEI Elkarteak. Ikastaroren helburu da azken urteotan euskararen berreskurapen lanetan burutu diren egitasmo zein ikerketa berriak ezagutzera ematea. Martxoaren 2an hasi eta maiatzaren 4an amaituko da ikastaroa eta Eibarko Markeskoa Jauregian (UEUko ikastetxe nagusian) emango dira eskolak, larunbat goizez. Informazio osagarria eta matrikulak, SEI Elkartearen, sei@sortu.org eta 943 - 592556 telefonoan.

44 herri dira Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean

## UEMA beste udalerrietara zabaldu beharra




**U**dalerri Euskaldunen Mankomunitatea gune euskaldunetan (populazioaren %70 euskaldun) euskararen erabilera arlo sozial guztietara zabaltzeko lanean ari da sortu zenetik 1988an. Hainbat lan eta ekimen abiarazi du harrezkero eta, egun, euskara zerbitzua ari da eratzen udal guztien artean.

44 udalerri dira UEMAko kide, Hegoaldekoak denak. Dena dela, Iparraldeko Euskal Konfederazioarekin ere hitzarmena sinatu du UEMAK, euskaldunei udal zerbitzua euskaraz ere emateko.

Egun, UEMA Jaurlearitzako Aholku Batzordeko partaidea da eta udal euskaldunetan egin beharreko plangintzaren diseinuan aritu da. EAEko gobernuak onartutako Euskara Biziberritzeko Plana txostenean UEMAren proiektua ontzat jotzen da: "(...) Euskararen erabilera nonbait baldin badago sustraituta, hori udalerri eus-


kaldunetan da, herri hauetan ematen baitira euskara gizarte-bizitzaren alor guztietara hedatzeko baldintzarik egokienak. Hau dela eta, UEMA edo haren antzeko proiektuak beste udalerri euskaldunetara zabaldu beharra dago".

UEMAren euskara zerbitzua eratu bitartean, euskararen inguruko lagungarriak, eta administrazio publikoetakoak bereziki, bildu dituzte Mankomunitatearen web gunean ([www.uma.org](http://www.uma.org)). Batetik, euskara baliabideak ditugu, Euskaltzaindiaren arauak, entziklopediak, hiztegiak (on-line datu-baseak zein PDF formatukoak), atsotitz-esamoldeak... Bestetik, profesional euskaldunen datu-basea, hau da, beren zerbitzua ahoz zein idatziz euskaraz emateko gai diren profesionalen datu-basea. Hainbat bilaketa-mota egin daitezke: izenaren, herriaren, herrialdearen eta lanbidearen arabera.



## Labayru Ikastegiaren argitalpen berria

*Bizkai euskeraren jarraibide liburua, zuzen idazteko estilo-liburua*



Honezkero ez dago bizkaieraz gaizki idazteko aitzakiarik. Labayru Ikastegiko Hizkuntza departamenduak bizkaieraz idazteko estilo-liburua argitaratu du Adolfo Arejitaren gidaritzapean. *Bizkai euskeraren jarraibide liburua* bizkaiera jasoan idazterakoan izan daitezken zalantzak argitzeko sortu da. Aldi berean, aintzakoztat hartu dira eskualde bakoitzeko erabilerak eta esamoldeak.

Liburua itzultzaileei, irakasleei eta kazetariei zuzendurik dago, batez ere, eta Eusko Jaurlearitza eta Bizkaiko Foru Aldundia lantzen ari diren Bizkai Euskeraren Lan Osoak bildumako lehen alea da.

Liburuak bizkaieraren "berpizkundea" baliatu nahi du, euskalkiaren aberastasuna euskara batuari eransteko. Morfologia eskuliburu argitaratu da orain, eta lexikoari eta sintaxiari buruzko lanak argitaratuko dira ondoren.

## XIII. Argia Sariak

*Goienkaria*, Pantzo Irigarai, Anjel Alkain, Elhuyar, BBK eta Bertsozaleen Elkarte saridun

**2**001. urtean komunikazioaren munduan nabarmendu ziren pertsona eta hedabideak saritu ditu, aurtan hamahirugarrenez, *Argia* astekariak. *Goienkaria* aldizkaria (prentsa), Pantzo Irigarai (irratia), Anjel Alkain (telebista), Elhuyar (Internet) eta BBK (publizitatea) izan ziren sarituak. Bestalde, Bertsozaleen Elkarteak jaso zuen merezimenduzko Argia Saria.

Antolatzaileen esanetan, Argia Sariak "lana hobeto egitea akuilatzeko asmoz, bihotzez emandako sariak" dira.

Prentsa idatziaren saria *Goienkaria*-rentzat izan zen, Debagoienako (Gipuzkoa) aldizkari guztiak bat eginez eskualde osorako astekaria sortu eta beste lurralde batzuentzat eredu izan daitekeen «esperientzia berritzailea» abiatzeagatik.

Irrati ataleko irabazleak, Pantzo Irigarai kazetari, antzezle, antzerkilari eta gidoigile baxenafartarrak, saria Irulegi Irrati osoarentzat zela adierazi zuen, "euskarari merezi duen maila eman baitio".

Telebista arloko saria Anjel Alkain aktorearentzat izan da aurtan, ETBko Sorginen Laratza saioan egiten duen lanarengatik.

Internet saileko saria Elhuyarren web orriak —[www.zientzia.net](http://www.zientzia.net)— jaso du, zientziaren mundua euskaraz hedatzen egiten duen lan handiagatik. Irabazleek dei gien zieten euskaldunei Internet euskarazko edukiez betetzeko.

BBK aurrezki kutxarentzat izan zen publizitate arloko 2002 Argia Saria eta Merezimendu Bereziko Saria Bertsozaleen Elkartearentzat izan zen, Belodromoko finalaren atarian elkarteak kaleratutako web orriaren egokitasunarengatik.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

### Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)  
Tel.: 945 01 81 16  
e-posta: [l-sosoaga@ej-gv.es](mailto:l-sosoaga@ej-gv.es)

Euskaraz  Gaztelaniaz

Izen-deiturak: .....

.....

Helbidea: .....

Herria: .....

Kodea: .....

Lurraldea: .....

Tel.: .....

e-posta: .....

## "Eibartarren ahotan", herriaren memoria

Herriko 120 aitona-amona  
elkarrizketatu dituzte

"Eibartarren Ahotan", herri horretako ahozko ondarea jasotzea helburu duen programa da eta Ego Ibarra Batzordearen ekimenez, Asier Sarasuak eta Itziar Alberdik herrikoak diren 80 urtetik gorako 120 aitona-amona elkarrizketatu dituzte 1999az gero. Lan horretan Eibar eta inguruko ohiturak, bizimodua, sinesmenak eta lanbide zaharrak bildu dituzte ikus-entzunezko 400 ordutan. Ondoren, datu basea egingo dute, nahi dutenek entzun dezaten, eta aztertzaileek ikerketak burutu ahal izan ditzaten.

Jasotako informazioa zehatz-mehatz katalogatu dute, eta minutu bakoitzean hizketarako den gaia datu basean identifikatu dute. Elkarrizketak egin ahala, gainera, 900 argazki eta 1945 eta 1955 bitartean grabatutako pelikula zaharrak ere bildu dituzte. Informazio osoa Ego Ibarren web gunean jarriko dute laster.